Gipuzkoako Foru Aldundia
Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurunea eta Lurralde Orekako Dptua.
Departamento de Promoción Económica, Medio Rural y Equilibrio Territorial
IRTEERA - SALIDA
2019 MAR. MAR. -5.
Zk. / N.º 2003

| A- 03/14 | FA: 0138 LI | 2019 |
|---|---|---|

Jakin dezazun eta bidezko ondorioak izan ditzan, Departamentu honetako Foru Diputatuak gaur ondorengo Agindua eman duela adierazten dizut:

Para su conocimiento y efectos le comunico que la Diputada Foral del Departamento, con fecha de hoy, ha dictado la siguiente Orden:

Leitzarango Basoak 1.031.2 zk. herri onurako mendiak 3.000 ha-ko luze-zabalera du. Iragan mendeko 60ko hamarkadaren lehenengo urteetan, ia mendi osoan, aurreko jabeek koniferaz baso berritzeko lanak egin zituzten. Landatutako konifera horiek, 35 urteko mozteko txanda duen radiata pinuak ziren gehienbat, beraz, 90eko hamarkadan, mendia erosi ondoren, heldutako radiata pinuen basoak baso berritzen hasi ziren. Baso berritzea hazkunde mantxoagoa duten espezie berriekin egin da, azaleraren zati oso handi bat bertako hostozabalez birpopulatuz.

El monte de utilidad pública 1.031.2 Leitzarango Basoak, perteneciente a la Diputación Foral de Gipuzkoa, tiene una extensión de 3.000 hectáreas. La práctica totalidad de este monte fue objeto de repoblación por sus anteriores propietarios con especies coníferas al principio de los años 60 del pasado siglo. Estas coníferas estaban constituidas en su mayor parte por pino radiata con un turno de corta de unos 35 años, por lo que, tras adquirirse el monte en la década de los 90, se comenzó a sustituir las masas adultas de radiata por nuevas repoblaciones. Las especies utilizadas en las nuevas repoblaciones tienen un crecimiento más lento, siendo muy importante la superficie repoblada con frondosas.

Hortaz gain, zur ustiaketaren bidez, egurra, mendiko produktu berriztagarria dena, ateratzea eta berehalako erabiltzaileak diren lehenengo eraldaketaren industrien eskuera jartzea lortu nahi da. Leitzarango Basoak Herri Onurako Mendiaren Kudeaketa Orokorraren Planaren barruan ezartzen den ustiapen planak zur merkatuaren berezitasunei erantzuna ematen dieten irizpideetan oinarritzen da.

Con el aprovechamiento de madera se persigue, además, la extracción de la madera como producto renovable de los montes y su puesta a disposición de sus usuarios inmediatos, que son las industrias de primera transformación. El plan de aprovechamientos establecido dentro del Plan de Gestión General del Monte de Utilidad Pública Leitzarango Basoak, atiende a criterios que dan solución a las particularidades del mercado maderero.

Oraingo honetan, B21 eta B24 unadetan honako ezaugarriak dituen egur aprobetxamendua erabat (matarrasaz) egitea proposatzen da, 34,90 ha-ko luze-zabaleran dauden Pinus radiata espeziaren 17.595 estereo zutik eta azalarekin. Oinarrizko lizitazioaren prezioa, berriz, 179.403,31 euro gehi BEZakoa izango da, guztira 217.078,00 euro. *Lecanosticta acicola* onddoak eragindako kalteak dituen pinudia da, eta, ondorioz pinudiak garapen eskasa du eta dagoeneko ale batzuk ihartzen ari dira.

En la presente ocasión, se propone el aprovechamiento de madera por corta a hecho (matarrasa) de los rodales B21 y B24, de una cuantía aproximada de 17.595 estéreos en pie y con corteza con un precio base de 179.403,31 euros más IVA, en total 217.078,00 euros y una superficie de 34,90 hectáreas. El pinar está afectado por el hongo *Lecanosticta acicola*, debido a ello, el pinar tiene poco desarrollo y algunos pies se están secando.

Hori guztia ikusita, eta ados egonik, Ekonomia Sustapeneko, Landa Inguruneko eta Lurralde Orekako foru diputatuak,

Visto todo ello, y considerado conforme, esta diputada foral del departamento de Promoción Económica, Medio Rural y Equilibrio Territorial,

## EBATZI DU

**Lehenengo**.- Onartzea honako kontratazio espedientea: *Gipuzkoako Foru Aldundiaren LEITZARANGO BASOAK izeneko (B21 eta B24 unadatan) 1.031.2zk herri onurako mendian egur ustiaketa erabat(matarrasaz) egiteko (A02/19-E/2).* Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 179.403,31 euro da gehi 37.674,69 euro %21eko BEZari dagokiona, guztira 217.078,00 euro, eta gauzatzeko epea, berriz, urtebetekoa.

**Bigarren.-** Onartzea kontratua prestatzeko eta aurrera eramateko oinarritzat erabiliko diren Ezaugarri Teknikoen eta Baldintza Administratibo Partikularren Agiriak.

**Hirugarren**.- Kontratua esleizeko prozedura irekiari hasiera ematea, kontratatzailearen profilean dagokion iragarkia argitaratuz.

Foru agindu hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Erabaki honen aurka, ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOA aurkez dezakete interesatuek, zuzenean, Donostiako administrazioarekiko auzietarako epaitegietan. Horretarako, BI HILABETEKO epea dute, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita.

Hala ere, aukera dute horren aurretik BERRAZTERTZEKO HAUTAZKO ERREKURTSOA aurkezteko foru diputatu honi HILABETEKO epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezezpena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

## RESUELVE

**Primero**.- Aprobar el expediente de contratación del *Aprovechamiento de madera por corta a hecho (matarrasa) en el monte de utilidad pública nº 1.031.2 LEITZARANGO BASOAK (rodales B21 y B24) perteneciente a la Diputación Foral de Gipuzkoa (A02/19-E/2),* con un precio base de licitación de 179.403,31 euros más 37.674,69 euros de 21% de IVA, en total 217.078,00 euros y un plazo máximo de ejecución de un año.

**Sugundo.-** Aprobar los Pliegos de Prescripciones Técnicas y Cláusulas Administrativas Particulares que servirán de base para la preparación y desarrollo del contrato.

**Tercero**.- Disponer la apertura del procedimiento abierto para la adjudicación del contrato, mediante el preceptivo anuncio a publicar en el perfil del contratante.

La presente Orden Foral es definitiva y pone fin a la vía administrativa. Los interesados podrán interponer directamente contra ella RECURSO CONTENCIOSO-ADMINISTRATIVO ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de Donostia-San Sebastián, en el plazo de DOS MESES, a partir del día siguiente al de su notificación.

No obstante, con carácter previo, podrán interponer RECURSO POTESTATIVO DE REPOSICIÓN ante esta Diputada Foral, en el plazo de UN MES a partir del día siguiente al de su notificación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.

Donostia/San Sebastián, 2019ko otsailaren 21a
IDAZKARI TEKNIKOAK,

Sin.: Alfonso Adarreta Rodriguez

**FINANTZA ETA AURREKONTUETAKO ZUZENDARITZA.-**